BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/08/04

# Gernikako Batzarretxeko bisita kopuruak %16 egin dau gora garagarrilean, beste Erkidego batzuetatik etorritako bisitariek bultzatuta

Gernikako Batzarretxeak 19.691 bisitariren sarrerea izan dau joan dan garagarrilean, eta %16,26an hobetu ditu igazko hilebete berean izandako datuak. Momentuz, aurtongo garagarrilak bisitarien maila altuena ezarri dau, 2003an Bizkaiko Batzar nagusiek erregistroa martxan jarri ebenetik. Aurtongo sarrerek nabarmen gainditzen ditue aurreko urteetako garagarriletan izandakoak: 15.581, 2013an; 16.925 2014an; 16.174, 2015ean; eta 16.936, 2016an.

Sarrerako zifren artean azpimarragarriak dira, batez be, Estaduko beste Autonomia Erkidego batzuetatik etorritako bisitarienak, joan dan garagarrilean %18,1 egin ebelako gora. Andaluzia (2.290 bisita), Madril (2.093) eta Katalunia (1.710) dira oraindino be bisitarien jatorrizko puntu nagusiak.

Atzerriko bisitari kopuruak be hazkunde handia izan dau urte batetik bestera. Ehunekoei jagokenez, zenbaki biko hazkundeak erakusten ditue (%12). Frantzia da, alde handiz lehenengo lekua beteten dauena bisitari kopuruan, 1.122 bisitarigaz, eta ostean Estatu Batuak (817) eta, atzerago, Alemania (459) dagoz. Hirugarren mailan ingelesak, holandarrak eta italiarrak aurkitzen doguz, eta horreen ostean mexikarrak, argentinarrak, belgikarrak eta israeldarrak.

Udan ikusi dan bisitari kopuruak Gernikako Batzarretxeak erakarpenerako daukan indar handia erakutsi dau barriro be. Gernikako Arbolak atseden hartzen dauen lekuak 635 bisitari jaso ditu batez beste garagarrilean egunero. Abuztu honetan kopuru hori alde handiz gaindituko dala aurreikusten da.

Batzarretako egoitzea ezagutzera hurbildu ziran pertsonen %80 Euskal Herri kanpotik etorri ziran. Udan, Batzarretxeak eta bere inguruak, beste autonomia erkidego batzuetatik eta Europako herrialdeetatik batez be etorritako bisitariz beteten dira. Garai horretako turismoaren ezaugarri nagusia familiarra dala da.

Urteko egun guztietan –osokoa egiten dan egunetan izan ezik– sarrera librea daukan Gernikako Batzarretxeak 100.000 bisitariak gaindituko ditu aurton be, udako turistei, urteko gainerakoan Batzarretako egoitzea bisitetan daben antolatutako talde ugariak gehituz. Holan, Bizkaian gehien bisitetan dan hirugarren leku historiko-kulturala da, Guggenheim eta Arte Eder museoen ostean. Udan goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
04/08/2017

# Las visitas a la Casa de Juntas de Gernika crecen un 16% en julio, impulsadas por la llegada de turismo estatal

La Casa de Juntas de Gernika ha contabilizado en el pasado mes de julio 19.691 entradas de visitantes, mejorando en un 16,26% los datos obtenidos en el mismo mes del año pasado. De momento, el mes de julio de este año marca un nuevo techo de visitantes desde que las Juntas Generales de Bizkaia establecieran un registro en el año 2003. Las entradas de este año superan holgadamente las experimentadas durante los meses de julio de años anteriores: 15.581, en 2013; 16.925 en 2014; 16.174, en 2015; y 16.936, en 2016.

Entre las cifras de entradas destacan especialmente las de visitantes procedentes de otras comunidades autónomas, que en este pasado mes de julio aumentaron un 18,1%. Andalucía (2.290 visitas), Madrid (2.093) y Catalunya (1.710) siguen siendo los principales puntos de origen.

El visitante extranjero continúa también experimentando un gran crecimiento de un año a otro, que en términos porcentuales registra aumentos de dos dígitos (12%). Francia ocupa con bastante diferencia el primer puesto del ranking con 1.122 visitantes, seguido de Estados Unidos (817) y, a notable distancia, se perfila Alemania (459). En un tercer nivel encontramos a ingleses, holandeses e italianos, a los que siguen de cerca, mejicanos, argentinos, belgas e israelíes.

Las cifras de visitantes de la época estival han vuelto a constatar el enorme poder de atracción que posee la Casa de Juntas de Gernika. El lugar de descanso del Árbol de Gernika ha recibido una media de 635 visitas diarias en julio, cifra que se espera superar con creces durante este mes de agosto.

El 80% de las personas que se acercaron a conocer el recinto parlamentario provino de fuera de Euskal Herria. Durante el verano, la Casa de Juntas y sus alrededores se llenan especialmente de visitantes venidos de otras comunidades autónomas y países europeos, un turismo que durante esta época destaca por ser eminentemente familiar.

La Casa de Juntas de Gernika, de entrada libre todos los días del año –excepto los días de pleno- volverá a superar los 100.000 visitantes, uniéndose a los turistas estivales los numerosos grupos organizados que visitan la sede parlamentaria vizcaína durante el resto del año, y convirtiéndose así en el tercer recinto histórico-cultural más visitado de Bizkaia por detrás de los museos Guggenheim y Bellas Artes. En verano está abierto de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 19:00 horas.